

ZUBIATE buztinola    Horno de ZUBIATE




XX. mende hasieran ontziak kalean eguzkitan lehortzen ikustea ohikoa zen gure herri askotan baina, erabilera eta ohitura berriek antzinako lanbide honen gainbehera ekarri zuten eta ontzigile askok beraien buztinolak itxi behar izan zituzten. Horrela, Felix Zubiatek ere 1910. inguruan utzi zuen buztinola.

A principios del s.XX la imagen de las vasijas secándose al sol en plena calle era común en muchos de nuestros pueblos, sin embargo, la introducción de nuevos usos y costumbres provocó el declive de este oficio ancestral y obligó a muchos alfareros a cerrar sus ollerías. Fue el caso de Félix Zubiate que hacia 1910 abandonó la alfarería.



Foto R. Compaire/ Fototeca. Diputación de Huesca

ZUBIATE LABEA: KULTURA ONDASUN.
Zubiate labea, Euskal Herrian gordetzen den zeramika labe adibide onenetakoa da, eta gaur egunera arte iritsi den mota horretako bakarra Gipuzkoan.
Enrique Ibabek, "La Cerámica Popular Vasca" liburuaren egileak, 1974an aurkitu zituen, beste instalazio batzuen artean ezkutaturik, labe zaharra eta horrekin batera buztinola osatzen zuten gainontzeko elementuak: tornu gelak, lehorketa guneak, zeramika biltegiak…
Gaur egun gordetzen den elementu bakarra labea da, eta Aranzadi zientzia elkarteak zaharberritu eta sendotu ostean balioan jarri da erakusketa honekin.

HORNO DE ZUBIATE: BIEN DE INTERÉS CULTURAL.
El horno de Zubiate constituye uno de los mejores ejemplos de horno cerámico conservados en Euskal Herria y el único testimonio de este tipo que ha llegado hasta nuestros días en Gipuzkoa.
Dicha alfarería permaneció activa hasta la primera década del s.XX fecha en la que Félix Zubiate, el último ollero que trabajó en la misma, la abandonó.
No será hasta 1974 cuando Enrique Ibabe, autor del libro "La Cerámica Popular Vasca" descubra escondido entre otras instalaciones el viejo horno y el resto de elementos que integraron la alfarería: las salas de tornos, zonas de secado y almacenaje de cerámica…
A día de hoy, el único elemento conservado es el horno y tras ser recuperado y consolidado por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, se ha procedido a su puesta en valor a través de esta exposición.





Foto R. Compaire/ Fototeca. Diputación de Huesca

## ERAKUSKETAREN EDUKIA

Bi esku BUZTINA LANTZEN. Hatzen artean bizia hartzen duen lehengaia. Belaunaldiz belaunaldi transmitititutako ezagutzak: mugimendu zehatzak, kalkulu doiak-tenperaturarenak, egosteko denborarenak, haize-jarioarenak-… Pieza guztiak berdinak eta, aldi berean, desberdinak dira. Bakoitzari bere buruaren zatitxo bat atxikitzen zion buztingileak. Aurkitzea, ezagutzea, aintzat hartzea, ikastea… jendeak buztingintzari buruzko zuzeneko ikuspegia jasotzea, buztingintzaren ondarearen eta tradiziozko lanbidearen partaide izatea. Horiek dira proposamen honen helburuak.

Denboran eta espazioan barrenako bidaia bat da; zeramika ekoizteko fase guztietan barrenako bidaia, hasi lehengaitik, eta piezak amaituta dauden artekoa. Bisitariak bertatik bertara ezagutuko ditu buztingintza-lantegi bateko aretoak buztingileen lanabesak, ontzien tipologiak eta horien erabilerak…
Bidaia honetan, labea da protagonista nagusia, eta ardatz horren inguruan egituratuta dago erakusketa guztia.

## CONTENIDO DE LA EXPOSICIÓN

Dos manos TRABAJANDO EL BARRO.
La materia prima que cobra vida entre los dedos. Los conocimientos transmitidos de generación en generación: movimientos precisos, certeros cálculos de temperatura, del tiempo de cocción, del flujo de aire… cada pieza es igual y diferente.
Descubrir, conocer, valorar, aprender… tener una visión directa de la alfarería, participar de un patrimonio y de un oficio con tradición, son los objetivos de esta propuesta.

Se trata de un viaje en el tiempo y en el espacio, por todas y cada una de las fases de producción de la cerámica, desde la materia prima hasta las piezas acabadas. El visitante conocerá las estancias de una alfarería, las herramientas que el alfarero utiliza en su trabajo, las tipologías y los diferentes usos de las vasijas…
En este viaje el horno es el protagonista principal y en torno a él gira la exposición.



Foto R. Compaire/ Fototeca. Diputación de Huesca




**Bisita hitzartzeko 943 715453 Visita concertada**

IBARRAUNDI museoa

eskoriatzako udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

EUSKADI

Eskertzak. Blanka Gomez de Segura, Enrique Ibabe, Archivo Provincial de la Diputación de Huesca.
Koordinatzailea.Isabel Aramendia